

Bermeoko toponimoak osagai bat baino gehiagoz osaturik daudenean lotuta idazten dira, deklinabide atzizkirik edo Santu izenik ez badago. Kasu hauetan gertatzen da:

- a.Izen + izen.
- b.Izen + adjektibo
- c.Izen + partizipio
- d.Izen + postposizio
- e.–aga morfema dutenak
- f.–eta morfema dutenak

Hori ikusita, zein multzotan kokatuko zenuke toponimo hauetako bakoitza?

Galdizerreka	Iraebagieta	Zurebagieta
Errekabaltze	Erregiñazubi	Arriboleta
Zugatzimieta	Bilbobidea	Iturrondo
Trapanondo	Pisukalea	Otaebagia
Iturralde	Eskolakalea	Infernuerreka
Goientzabale	Arloluze	Txibitxiaga

Toponimoak osatzeko erabiltzen diren zenbait osagai agertzen dira hurrengo zerrendan. Bakoitzarekin Bermeoko bi toponimo bila itzazu.

alde	ondo	baltz
arte	solo	eder
baso	-di/ti	gibel
bide	-pe	ilun
buru	-tegi	txiker
kale	-txu	zabal
leku	-iz	zahar

Zutabe hauetan Bermeon toponimoak osatzeko erabiltzen diren zenbait osagai agertzen dira. Lotu itzazu Bermeon benetan dauden toponimoak sortuz. Kontuan izan, bi osagaiak batzerakoan zenbait aldaketa jasan ditzakeela hitzak. Ondoren, zein auzotan dauden esan.

#### LEHENENGO OSAGAIA

Alde  
Ondo  
Baltz  
Arte  
Solo  
Eder

#### BIGARREN OSAGAIA

aran  
errota  
ola  
anton  
Bi  
Almika